

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

### - Zein da zure bezeroa? Zein dira bezero horien ezaugarriak?

Hasteko, esan genezake gure aplikazioaren merkatuaz hitz egitean merkatu masibo baten aurrean egongo ginatekeela. Mota honek esan nahi du antzerako beharrak dituzten bezeroak direla. Kasu honetan bitan banatuko genuke, alde batetik nekazariak, eta bestetik nekazarien erosleak.



Nekazarietzako aplikazio hau oso baliagarria izango litzateke. Hasteko, nekazari askok ez dute haien uzta mundura erakusteko premiarik eta hori egiteko modurik hoberena aplikazio edo webgune baten bidez baina askotan ez dute hori egiteko modurik. Horren aurrean, guk aplikazio unibertsal bat eskaintzen diegu. Bestalde, askoz erosoagoa da aplikazio baten bidez saltzea plazaz plaza ibili beharrean. Nekazari txiki gehienak haien produktuak saltzeko herrietara joaten dira postuak jartzera, baina ez da eroso eta produktuak haien baratzetik herri hauetara mugitzeko beharreko furgonetak ordaindu behar dituzte, eta baita gasolina ere. Azkenean, nekazarietzako ez da eroso ezta ekonomikoa ere haien produktuak saltzea.

Gure bezeroen beste zatia nekazarien bezeroak dira, zeinetarako errazagoa izango den nekazariekin kontaktua mantentzea aplikazioarekin. Aplikazio honetan, *chat* moduko bat sartuko dugu nekazariak haien erosleekin kontaktuan mantentzeko eta garraioari buruz gehiago jakiteko. Gainera, erosleentzako ere errazagoa eta osasuntsuagoa da honelako nekazariengandik produktuak erostea. Erosleek kalitatezko produktuak jasoko dituzte eta garrantzitsuena, zonaldekoak, honela, garraioaren kostua asko murriztuko da.

Laburbilduz, gure aplikazioak bi bezero mota jasoko ditu, nekazariak eta hauen erosleak. Programa honek, erosotasuna eta erraztasuna bermatuko ditu, bakoitzak bere etxetik egin dezakelako eta garraio sistema bat integratuta izango duelako.